

AUTOEBALUAZIO PROZEDURAK: EBALUAZIO JARRAIA

ERIZAINNTZA OTORRINOLARINGOLOGIKOA

Test-erako proba, ORL 8.gaia:

- 1) Faringea. Aukeratu esaldi okerra:
 - a. Faringea 3 zatiz bananduta dago: rinofaringea, orofaringea eta laringofaringea
 - b. Faringearen patologiak faringitisak, amigdalitisak eta adenoiditisak dira
 - c. Faringean amigdalak kokatzen dira
 - d. Faringearen loturak sudurra eta esofagoa dira
- 2) Faringitisak. Aukeratu esaldi egokia:
 - a. Faringitis birikoaren sintomatologia ohikoena katarroarena da
 - b. Faringitis birikoaren tratamendua analgesikoak, antiinflamatorioak eta likidoak ematean datza
 - c. Faringitis kronikoak irenste arazoekin batera doaz
 - d. Denak egokiak dira
- 3) Amigdalitis akutuak. Aukeratu esaldi okerra:
 - a. Amigdalitis akutuak 3 motakoak izan daitezke: eritematosoak, pseudomenbranoak eta ultzerosoak
 - b. Amigdalitis akutuak gehienetan bakterianoak dira
 - c. Amigdalitis akuturik ohikoenak eritematosoak dira
 - d. Amigdalitisak akutuak amigdaletan hantura akutuak dira
- 4) Abszesu periamigdalinoa. Aukeratu esaldi egokia:
 - a. Abszesu periamigdalinoa amigdalitis kronikoaren konplikazioa da
 - b. Abszesu periamigdalinoaren sintomak disfagia, mina eta sukarra dira
 - c. Abszesu periamigdalinoaren tratamendua amigdalektomia izan daiteke
 - d. B eta C egokiak dira
- 5) Aho-barrunbeko tumoreak:
 - a. Mihiaren tumoreak dira
 - b. Aho - zoruaren tumoreak dira
 - c. Amigdala palatinaren tumoreak dira
 - d. Denak egokiak dira

Egia ala gezurra, ORL 8.gaia:

- 1. Faringitisa eta amigdalitisa sinonimoak dira.**
- 2. Amigdalitisak infekzio birikoak eta bakterianoak dira.**
- 3. Amigdalitis motaren diagnostiko zehatza birage-frogaren bitartez egiten da.**
- 4. Amigdalitis eta amigdalaren tumoreen hasierako sintomak berdinak dira.**
- 5. Abszesu periamigdalinoa amigdalaren tumore gaiztoa da.**

ERANTZUNAK (ORL, 8. gaia):

Testa:

- 1) D
- 2) D
- 3) B
- 4) D
- 5) D

Egia ala gezurra:

- 1) Gezurra
- 2) Egia
- 3) Egia
- 4) Egia
- 5) Gezurra